

Donostian, 2018ko azaroaren 5ean

## IDAZKARITZA NAGUSIARI

### DONOSTIAKO ETXEBIZITZA HUTSEI BURUZKO MOZIO ARRUNTA

Amaia Martin Garinek, Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua araberan, hurrengo MOZIOA aurkeztu du OSOKO BILKURAN EZTABAIDA dadin, Donostian hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzeko premiari BURUZ.

### JUSTIFIKAZIOA

Etxebizitza publikoko parkearen urritasuna herrialde modura gainditu beharreko erronka handietako bat da, arao horrek euskal gizartean duen ondorio zuzena dela medio. Gaur egun, Higiezin Merkatuari buruzko inkestaren arabera, Euskadin 2017. urtean, 84.082 pertsona lehendabiziko etxebizitzara sartzeko premian daude, eta horietako hiru laurdenak ez du diru-sarrerarik edo dituen diru-sarrerak ez dira horretarako aski. Gainera, Etxebidek gizarte alokairurako ia 62.515 etxebizitza eskaera zenbatzen ditu.

Horren aurrean, hutsik dauden 58.697 etxebizitza ditugu. Horietako 35.647 alokairuko merkatuan mugitzeko kudea daitezke. Donostian, egungo Etxebizitza Planak hirian 3.885 etxebizitza hutsik daudela aitortzen du. Hori dela eta, hutsik dauden etxebizitzak alokairuko etxebizitza publikoaren parkera mugitzea lehentasunezko kontua izan behar da Gobernuaren jardunean. Lehentasun hori Arartekoak berak jasotzen zuen 2017. urteko Eusko Legebiltzarraren urteko txostenean “Euskadiko herri-administrazioei babes publikoko etxebizitzaren parkea handitzeko” eskatuz.

Hutsik dauden etxebizitzak mugitu ahal izateko ezinbestekoa da berehala behar beste bide arakatzea. Gaur egun, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legean hainbat tresna eskaintzen dira, arauz behar bezala garatu behar direnak, horiek txertatzea ahalbidetuko duten prozesuen bidez. Hutsik dauden etxebizitzaren erregistroa, kanonaren kobrantza edo behartutako alokairua hutsik dauden milaka etxebizitza horiek babestutako etxebizitzaren parkera mugitzeko balia daitezkeen zenbait tresna dira.

Horri buruzko Legea garatzen hasi behar gara lehenbailehen.

Alde batetik, haren garapenari buruzko zenbait anbiguotasunek sorrarazten duten problematika kontuan hartuz. Inor bizi ez den etxebizitzaren erregistroa garatzea, inor bizi ez den etxebizitzari kanonaren kobrantza erregulatzea edo egiaztatutako premia eta eskaria dagoen testuingurutan behartutako alokairua aplikatzea Legearen alderdi jakinak dira, eta ez dago garbi udalen eskumena diren, esparru autonomiko bat eskatzen ote duten edo soilik Eusko Jaurlaritzak arautuko ote dituen.

Bestalde, Eusko Legebiltzarrak berak azken urteotan legez besteko zenbait proposamenetan etxebizitzaren egungo arazoari irtenbidea emateko legeari dagozkion alderdi ezberdinak garatzeko premia onartu du, modu horretan, pertsona guztiek etxebizitza bat eskuratzeko duen eskubide subjektiboa betez. 2018ko uztailan Eusko Legebiltzarrak onartu zuen Eusko Jaurlaritzari hertsatuki eskatzea “beharrezko prozedurak zehaztu ditzan eta beharrezkoak diren ekintza guztiak burutu ditzan, Konstituzio Auzitegiak indarreko baliogabetzea altxatzen duenean, Etxebizitzari buruzko 3/2015 legean hutsik dauden etxebizitzetako buruz aurreikusten den erregistroa martxan jarri ahal izateko (...)”. Konstituzionalaren Epaia 2018ko irailaren 19an iritsi zen, legearen alderdi ugari garatzeko aukera emanez, gaurdaino geldiarazi egin direnak.

Donostian etxebizitzarako sarbidea lehen mailako arazo bilakatu da. Hirian alokairuaren batez besteko prezioa 1.300 eurokoa da hilean, eta prezio hori % 20 igo da urte bakarrean. Soldata baxu eta aldi baterako lanak ezaugarri dituen prekariedade orokorreko errealitate honetan zenbaki horrek oinarritzko eskubide hori eskuraezin bilakatzen du familia gehienentzat. Horren ondorioz, aurreko urtearen alderatuz alokairuko etxegabetze kasuak % 30 baino gehiago areagotu dira: 684 familia etxegabetu dituzte urte honetako lehendabiziko sei hilabeteetan Euskadin; 151 etxegabetze hipoteka gauzatuta, 465 etxegabetze alokairuko etxebizitzetan eta 68 etxegabetze beste arrazoi batzuk direla medio. Gainera, etxebizitzaren prezioa areagotzearen ondorioz, pertsona askok ezin dute hirian bizi. Horrenbestez, errealitate horri aurre egiteko neurriak txertatu behar dira berehala: etxebizitzaren prezioa erregulatzea alokairuaren burbuila frenatuz, gizarte alokairuko etxebizitza publikoaren parkea areagotzea, hutsik dauden etxebizitzak mugitzea; hori guztiori etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa bermatu eta bizitegi-premia egoeran dauden pertsonak defendatzeko.

Horregatik guztiagatik, eta hori izanik, prekarietatearen aurka eta bizitza duinaren alde borrokatzearekin batera, Donostiako herritarrak gehien kezkatu eta arduratzen dituen gaia, Udal honek Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legearen 7. artikulua betetzeko neurri eraginkorrak garatu behar ditu.

### MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari hutsik dagoen etxebizitza mugitzeko premiazko ekintzak burutu ditzan, hirian etxebizitza eskuratzeko dagoen arazo larria kontuan izanik.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari ezagutaraz dezan, hiru hilabeteko epean, hutsik dauden etxebizitzak mugitzeko garatu asmo dituen neurrien kronograma, Udal honek hutsik dauden etxebizitzak gizarte alokairuko parke publikora mugitzeko eraginkorrak izango diren neurriak garatu ahal izateko aurreikusten dituen arauekin batera.

Sin.: Amaia Martin Garin,

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.